



Euskal Jaia: hasi da karrozen prestaketa

- **2_ Udal-gai nagusia**
_Komunikazioa: WEB berria eta KAIKO berria
- **14_ Herriko gai nagusia**
_Urretxuko Euskal Jaia 50 urte
- **18_ Erreportaia**
_Oporrak bakean. Saharako haurrak
- **20_ Elkarrizketa**
_Aritz Lasa, Pilotaria



Urretxuko udal-hedabideak berri dira urretxuarrei KAIXO aldizkariak eta Urretxu.net-ek, herriaren komunikazio

Udala

El Ayuntamiento de Urretxu ha renovado los medios de comunicación municipales para ofrecer a los y las urretxuarras una información más completa, fresca, cómoda y mejor estructurada sobre la actividad del ayuntamiento.

Uztaileko KAIXO hau eskuetan hartzean konturatuko zineten irudia zeharo aldatuta gatzela. Aldaketa-rekin zuek ere gu bezain pozik sentitzea espero dugu.

Dakizuen moduan, azken hilabeteetan Urretxu bere irudia berri nahian, gaztetu nahian, dabil irudi eguneratuago bat proiektatzeko asmoarekin. Helburu honekin hainbat pauso eman dira udaletik herriarentzako logotipo berria aukeratzetik hasita. Baina berritze hau, irudizkoa soilik izatetik urrun, filosofia berri baten adierazgarria da eta udalari dagozkion alor guztiei eragiten die, baita udalak herriarekin ezarri nahi duen komunikazio dinamika irekiagoari ere. Horregatik, udal



hedabideek Urretxurekin batera aldatzeko beharra izan dute itxuraz eta baita edukiz ere.

Los medios municipales han cambiado en imagen y contenido, en consonancia con Urretxu.

Herritarrak udalerrian gertatzen zenaren inguruan informatuta izateko, KAIXO udal aldizkaria urretxuarrek urretxuarentzako egindako komunikabide hurbil modura jaio zela 30 urte beteko dira abenduan. Denbora igaro ahala baina, herrian gertatzen denaren berri ematen diguten komunikabide kopurua haziz joan da (Otamotz, Diario Vasco, Noticias de Gipuzkoa, Goierriko Hitza, Urola Teledista eta abar), infomazio-iturrien mapa berri eta zabalago bat osatu delarik.

Kaixo 98.alea
2009ko uztailea
Urretxuko Udal Aldizkaria

Ale honetako laguntzaileak:

Jesus Mari Alberdi, Iñaki Arriaran, Sara Arrizabalaga, Gorka Azkarate, Irene Calvillo, Miren Castillo, Jon Castrillo, Miguel Cristobal, Begoña Etxaniz, Rosa Etxaniz, Ana Isabel Iturbe, Unai Lazkano, Ana Ovejas, Maite Quevedo, Koldo Telleria, Kiskitza Ugarteburu, Mari Carmen Viedma

Argazkiak:

Azala: LUIS ANGEL TELLEZ

Barruko argazkiak: LUIS ANGEL TELLEZ eta KAIXOko LAGUNTZAILEAK

Lege Gordailua: SS/678/93

Konposaketa: ERROTAPRINT Inprimaketa: IPARRAGIRRE, S.A.

Tirada: 3.400 Ale

KAIXOk ez du derrigorrez bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

KAIXO no se identifica necesariamente con las opiniones de sus colaboradores, ni se hace responsable de las mismas.

Ez bazara Urretxun bizi eta KAIXO aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, eman zure helbidea 943 03 80 88 telefonoan edota kultura.ur@urretxu.net helbide elektronikoan.

Si no vives en Urretxu y quieres recibir la revista KAIXO en tu buzón, déjanos tu dirección en el teléfono 943 03 80 88 o bien en kultura.ur@urretxu.net.

informazio zerbitzu hobea eskaintzeko

filosofia berria barneratuz, itxura modernoagoa eta bateratuagoa izango dute

Horregatik, herriari eskaintzen dion zerbitzua hobetzeko, KAIXO aldizkariak mapa berri honetan berkokatzeko beharra somatu du. Honela, aldizkariaren jatorrian dagoen filosofia mantenduta, komunikabide hauek guztiek ez daukaten funtzioa izatea nahi dugu: udaletxe barruan gertatzen denaren erakusgarri izan nahi du KAIXOk, bertako sail bakoitzaren jarduna eta herritarrei berauetan aurki ditzateketen zerbitzuak erakustea Udala herritarrei hurbildu eta herritarrak Udalarengana hurbiltzeko.

Horrez gain, KAIXOren orrietan berdin-berdin izango dute tokia herritarren iritziek, herriko gertakari garrantzitsuek, herriaren historiak eta urretxuarren interesekoak izan daitezkeen bestelako ekimenek. Era berean, KAIXOk lan-talde bera izaten jarraituko du, lehengo idazle talde berak baitarrai kolaboratzailer lanetan eta KAIXOren batzordea osatzen.

Urretxu.net modernoagoa eta erabilerrazagoa

Udalak www.urretxu.net Urretxuko udalaren web orrialde ofiziala ere eguneratu eta argitaratu berri du. Webgune berria modernoagoa eta erabilerrazagoa da, bai irudi aldetik bai edukiaren antolakuntza aldetik.

Bertan herritarrentzako zein kanpotarrentzako erabilgarria izan daitezkeen informazioa aurki daiteke, baita on-line egin daitezkeen udal tramiteak egiteko aukera ere. Webgune zaharrean zegoen informazioa egokitu eta osatu du udaletxeak eta hiru ataletan antolatu du erabiltzaileak orrialdean barna erraztasun handiagoaz mugitu daitezkeen:

KAIXO y Urretxu.net quieren fomentar el conocimiento mutuo entre el Ayuntamiento y la ciudadanía.

- 1 **Udal administrazioa:** udaletxeari eta udal administrazioari dagozkion hainbat tramite eta zerbitzu ezagutzeko eta betetzeko aukera eskaintzen duena.
- 2 **Herritarrak:** Urretxu eta urretxuarren egunerokotasunaren berri izateko aukera eskaintzen duena.
- 3 **Turismoa:** Bertakoentzako zein kanpokoentzako Urretxuko bazter nabarmenenak ezagutzeko aukera eskaintzen duena.



Udal-gaiak / Temas municipales

Udaltzaingoa

Nuevas plazas para personas minusválidas



Debido a las necesidades observadas en materia de aparcamientos para personas disminuidas físicas, se ha procedido a crear nuevas plazas para personas minusválidas y se han reacondicionado las plazas ya existentes.

Dado que se han detectado fraudes y abusos en el uso de estas tarjetas, se están actualizando los listados de las mismas y se va a proceder a un mayor control de su uso por parte de la policía municipal.

Gaztedia

Gazte plana

Urretxu eta Zumarragako udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, haur, nerabe eta gazte biztanleriari zuzenduriko udal politika zehatza definituko duen plangintza lantzen ari dira. Horretarako Urretxu-Zu-

marragako egoeraren diagnosa egin da eta hori oinarri harturik lan ildoak zehaztuko dira. Diagnostikoan garbi ikusten da hutsuneak daudela haur, nerabe eta gazteentzako aisialdi eskaintzan, oso aukera muga-

tu eta urriak dituztela, alegia. Adibide modura, agerikoak dira nerabeen denbora libre modu hezitzaile batez lantzeko beharra edota gazteen musika taldeentzako entsegu lokal baten beharra, besteak beste.

Turismoa

Turismo bulegoa berriz martxan

Gestioa mankomunitatetik eramango da.

Urola Garaiko turismo bulegoa martxan da berriz ere Lenbur enpresaren kudeaketapean. Lenburrek, UGASSAK zerbitzu hori emateko irekitako lehiaketa irabazi ondoren, Urola Garaiko mankomunitatea osatzen duten lau udalek jarritako baldintzak eta irizpideak jarraituz gestionatuko du bulegoa, beti ere udalekin modu koordinatuan lan eginda. Izan ere, bailarako udalek nabaria zuten turismoa mankomunitatearen bitartez eta elkarlanean kudeatzeko beharra.

Uztailaren 1ean berriz atek irekita, modu iraunkorrean funtzionatzen jarraitzeko planteamendurekin ekin dio bulegoak ibilbide berriari.



Ingurugiroa

Participa en el foro de sostenibilidad ¡Urretxu te necesita!

En abril tuvo lugar la primera reunión del Foro de Participación Ciudadana, cuya función primordial es recoger aportaciones, sugerencias y propuestas provenientes del tejido asociativo y de la ciudadanía en general al objeto de mejorar la calidad de vida del municipio, así como favorecer el debate sobre cuestiones relacionadas con el medio ambiente y el desarrollo sostenible.

La próxima reunión tendrá lugar en septiembre, y mediante estas líneas queremos incidir una vez más en que la participación de todos y todas los/las urretxuarras es imprescindible para que este proceso de reflexión y debate funcione. ¡Contigo podemos hacerlo!

Kontuhartzailletza

El Presupuesto General de 2009 disminuye un 20%



El Ayuntamiento de Urretxu percibirá de la Diputación de Gipuzkoa aproximadamente un 20% menos en la recaudación del Fondo Foral de Financiación Municipal correspondiente al ejercicio económico 2009, lo que supone una bajada de 840.000 euros en el Presupuesto General.

Para afrontar esta nueva situación el Ayuntamiento ha adoptado medidas como controlar el gasto corriente o realizar menos inversiones para disminuir en la partida de Inversiones el desfase previsto.

Hiri debekatuaren mapa

Urretxu eta Zumarragako udaletako Berdintasun Arloen ekimenez, Hiri Debekatuaren Mapa sortu da, non bi herrietako gune arriskutsuak edo/eta irisgarritasun gutxikoak identifikatzeaz gain, leku hauek hobetzeko proposamenak jaso diren.

Hauek izan dira Hiri Debekatuaren Maparen helburuak:



1. Irisgarritasun arazoak sortu eta segurtasun eza edo arriskua eragiten duten gune edo zonaldeak identifikatzeko prozesu partehartzailea sortzea.
2. Hirien diseinuak emakumeenganako indarkeriarekin eta gutxitu fisikoen mugikortasun arazoekin duen harremanaren inguruko gogoeta sustatzea.
3. Parte hartzaileei kalearen erabilpenean genero ezberdintasunak daudela ikusaraztea.
4. Eztabaidarako eta topaketarako espazio bat sortzea.

Mapa hau osatzeko, metodologia partehartzaile eta malgua erabili da, prozesuan elkarte eta norbanakoek parte hartu dutelarik.

Identifikatu diren gune "ilunak" dokumentu batean bildu dira, bakoitzaren fitxa teknikoa eta argazkiak jasota. Irailaren 14tik 17ra Zumarragako Zelai-Arizti kultur etxean argazki erakusketa egingo da.

Horrez gain, interesdun guztiek mapa osatzeko proposamen edo ekarpenak bidal ditzakete udaletxera gizadmi.ur@urretxu.net helbidearen bitartez.

En el Mapa de la Ciudad Prohibida se han identificado los puntos peligrosos y/o de poca accesibilidad de Urretxu y Zumarraga.

Bizigune programan baldintza aldaketa

Bizigune-n, etxe hutsak alokatzeko programa, parte hartzeko baldintzetan aldaketak izan dira martxoan argitaratu zen ebazpenaren ondorioz. Horieta batzuk ondorengoak dira:

- Etxebizitzek okupatu edo alokatu gabe egon behar izan duten aldia 12 hilabetetik 9 hilabetera murriztu da.
- Onartutako gehienezko azalaren baldintza (120 m²) indargabetu da.
- Egoitzara doazen hirugarren adineko pertsonen etxebizitzak unean bertan sartu ahalko dira programan.

Informazio gehiago, www.etxebide.info helbidean edo udaleko Gizarte Zerbitzuen idazkaritzan.

Aniztasuna eta bizikidetzaren Urretxun eta Euskal Herrian

Urretxuko udalak, Anitzak elkartearekin batera, eztabaida prozesu ireki eta partehartzaile bat jarriko du martxan, jatorri ezberdinetako pertsonen elkar-aitortza lortu eta, honela, bizikidetzaren hobetu nahian.

Udan zehar, elkarteak, herriko agente ezberdinekin harremanetan jarriko da talde dinamizatzailea sortu eta herriko migrazio prozesuen fenomenoaren azterketa egiteko.

Urritik aurrera berriz, migrazioarekin lotutako gai ezberdinak mahai gainean jarriko dira jardunaldi batzuen bidez.

Marcha regulada de jubilados

La Federación de Jubilados y Pensionistas de Gipuzkoa y los Ayuntamientos de Urretxu y Zumarraga, están organizando para el 18 de octubre una marcha regulada en la que se prevé la participación de unas 700 personas. Esta marcha recorrerá los dos municipios y, tras una entrega de premios, finalizará con una comida.

Hirigintza

Nuevos columbarios en el cementerio municipal

El Ayuntamiento de Urretxu ha instalado en el cementerio municipal un conjunto de columbarios, pequeños nichos provistos de un recipiente para contener cenizas procedentes de la incineración, de 40 X 40 cm.

Esta medida responde a la creciente demanda ciudadana ya que cada vez más individuos y familias optan por la incineración. Al igual que los nichos tradicionales, el uso de los columbarios se concede por diez años pudiéndose ampliar, una sola vez, por otros diez.



Aurrera doaz Santa Barbarako tabernako eta aterpetzeko lanak

Apirilean eraitsi zuten Santa Barbara basilizari urte askoan atxikita egon den taberna eta aurrera doaz berria eraikitzeko lanak. Horrez gain aterpetxe bat eta biltegia ere eraikiko dira. Kanpoan zein arkupean

kokatuta dauden mahaiak mantendu egingo dira eta autoentzako pasabidea parkearen erdigunetik perimetrora bideratuko da.

Kirolak

Erabiltzaileak gustora Aldiri Kiroldegiak eskaintzen duen zerbitzuarekin

Urtarrilean bezeroen asetasun maila ezagutzeko inkesta banatu zen Aldiri udal-kiroldegiko 650 erabiltzaileen artean. Hauetatik 128k erantzun dute galdetegia non kiroldegiari dagozkion alderdi desberdinen inguruko galderak planteatzen zitzaizkien, hala nola: langileen jarrera, instalakuntzen kalitatea, ikastaroekiko asetasun maila edota prezioen eta

ordutegien egokitasuna. Bildutako informazioa aztertu ondoren bezeroek, oro har, "Ona" balioa eman diete kiroldegiko instalakuntza eta zerbitzuei (1etik 5erako asetasun maila neurtzerakoan 4ko puntuazioa litzatekeena).

Horrez gain, kiroldegiko erabiltzaileen profila ere aztertu da. Horretarako honako datuoi erreparatu zaie: sexua (%92 emakumeak dira eta %8 gizonak), udalerrria (%63 Urretxun bizi da -gehienak kiroldegitik hurbil-, %34 Zumarragan eta %3 Legazpin), ikasketak maila (gehiengoak ikasketak maila altua dauka) eta adina (adin-talde desberdinak nahiko orekatuta aurkitzen dira).



Igerilekuak

Urtero bezala, Urretxuko Udalak Pagoetako udal-igerilekuak ireki ditu udarako. Aurtengoan denboraldia ekainaren 13tik irailaren 13ra bitartean luzatuko da eta igerilekuak egunero irekiko dira goizeko 11etatik arratsaldeko 8ak arte.

Liburutegian eta KZ gunean aldaketak



Jauregi 21 helbidean kokatuta zegoen helduen heziketarako eskolaren leku aldatzeak utzitako instalakuntza hutsak aprobetxatze aldera, KZgunea bertara mugituko da laster. Era berean, lokalaren zati bat ondoan dagoen liburutegiak beteko du.

Liburutegian berrikuntzak

Aldaketa honek onura garrantzitsuak ekarriko dizkie liburutegiaren erabiltzaileei bertan aurkitu ahal izango den zerbitzu kopurua zabaldu egingo baita, hala nola: Haur txokoa (0-3 urte bitarteko haurrentzako leku bereiztua), ikasketa gela eta ikus-entzunezko gunea. Gainera, lau ordenagailu jarriko dira erabiltzaileen eskura eta hemerrotekak duen toki ere handitu egingo da.

Urrelur Mineral eta Fosilen Museoa

Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoak berezko izena du dagoeneko: Urrelur. Baina izena berritzeaz gain, irudia ere berritu nahi du Urrelurrek gure museoa erreferente baita aditu eta bildumagileen artean eta hartzen duen bilduma pun-


ta-puntakotzat kontsideratua dago. Horregatik, ibilbide berri honi indar gehiagorekin ekin diezaion, logotipo berri bat ere sortu da. Hala ere, 1987an jaio zen museoaren azpiegiturak zaharkituta gelditu dira, ondorioz,

berrikuntza sakona iritsi bitartean, zenbait aldaketa jasoko ditu (entzutekoa, panel didaktikoak eta abar).



Tarjeta ONA

Hasta el 30 de septiembre puede tramitarse en Urretxu (ayuntamiento, casa de cultura, polideportivo y KZgunea) la tarjeta ONA. Esta tarjeta sanitaria que viene a sustituir la actual tarjeta de Osakidetza ofrece también la oportunidad de realizar distintos trámites forales y municipales.



Datos de desempleo

La tasa de desempleo de Urretxu ha crecido un 3,72% respecto a la del año anterior situándose en un 9,85% (311 personas), ligeramente por debajo de la de la comarca y la provincia. Hombres y mujeres se encuentran representados de manera muy igualada (casi al 50%).

Euskara

Kirol eta kultur elkarteetan euskararen erabilera bultzatzeko plana

Urretxuko Udaleko Euskara Batzordearen ekimenez, herriko kirol eta kultur elkarteetan euskararen erabilera sustatzeko plana jarri da martxan.

Ekimen honek lau ardatz nagusi ditu:

- **Diagnosia:** Datu bilketa baten bidez, elkartearen hizkuntza egoera aztertuko da, ahozko nahiz idatziko jarduna nolakoa den ezagutzeko.
- **Lehentasanak ezartzea:** Hizkuntza egoera aztertu ondoren lehentasanak ezartzeari ekingo zaio; bereziki kontuan izango dira haur eta gaztetxoekin lan egiten duten elkarteak.
- **Helburuak/konpromisoak adostea:** Elkarte bakoitzaren hizkuntza egoera abiapuntu hartuta, hiru mailatako helburuak adostea aurreikusitako da. Horretarako 3 taldetan sailkatuko dira elkarteak: 1) gehienbat euskaraz egiten dutenak; 2) zerbait euskaraz egiten dutenak; 3) gehienbat gazteleraz egiten dutenak.
- **Helburuak/konpromisoak betetzeko baliabideak:** Adostutako helburuak betetzeko, izan litezkeen oztopoei aurre egiteko baliabideak eskainiko dira; hala nola, sentsibilizazio saioak, trebakuntza saioak, idatziko ereduak, euskarazko materiala eta abar.

Gauzak horrela, joan den maiatzean Euskara Batzordeko ordezkariak egitasmoaren aurkezpen bilera egin zuten kirol elkarteetako ordezkariekin. Bilera horretan, besteak beste, datu bilketa egiteko fitxak banatu zitzaizkien elkarteetara lehen urratsari ekiteko.

Horrez gain, Udalak teknikari bat kontratatuko du irailtik aurrera, ekimen honek eskatzen dituen eginkizunetan aritzeko eta dagokion jarraipena egin ahal izateko.



“Euskaraz? Pozik gainera!”

Eskualdeko euskara zerbitzuek eta Mankomunitateak elkarlanean jarraitzen dute merkatariei euskarazko baliabideak eta autonomia garatzeko tresnak eskaintzeko. Honela, ekainean zehar bi saio antolatu dira dendariei zuzenduta kartelak, fakturak edota idatziak euskaraz egin ahal izateko.

Lehen “ikastaroa”, *Dendako idatziak* euskaraz egiten ikastekoa, ekainaren 3an eta 4an izan zen Legazpian; bigarrena, *Interneteko euskarazko baliabideak* euren eskura jartzekoa, ekainaren 10ean eta 11n Urretxun.

Guztira, hiru herrietako 10 dendarik hartu zuten parte.

Udal-langileentzako trebakuntza saioak

Urretxuko Udalak onartua duen euskara planean aurreikusitakoaren ildotik, euskarako trebakuntza saio laburrak eskaintzen ari zaizkie udal-langileei eguneroko lanean, ahoz nahiz idatziz, behar dituzten trebetasunak eskura ditzaten.

Oraingoz udaltzainek, eta kirol eta kultura zerbitzuetako langileek soilik jaso dute trebakuntza baina, aurrerago, beste sail batzuetara ere zabalduko da. Horretarako udal euskaltegiko hainbat irakasle arituko dira eskola ematen.

Gurasoei zuzendutako Mintzalaguna egitasmoa

Guztiok dakigu ikasleen euskararen erabileran eragiteko garrantzitsuak direla etxetik transmititzen zaizkien jarrerak eta balioak (Hazia lurretik, euskara etxetik). Hori dela eta, bultzada berezia eman nahi diogu datorren ikasturtean gurasoen MINTZALAGUNA egitasmoari. Euskara sendotu, aberastu edo berreskuratzeko 3 edo 4 laguneko taldeak bilduko dira astean ordubetez Zumarragako eta Urretxuko euskara zerbitzuen eskutik.

Tokiko gobernu batzarra / Junta de gobierno local

Miren Castillo

Oharra: Kaixoren zenbaki honetarako 2008ko erabakien titularrak utzi dugu soilik. Gehiago jakin nahi izanez gero begiratu mesedez web orrialdea, han osorik baitaude.

2008_12_11

Fatxadak margotzeko programa Jauregi 2. Dirulaguntza.

Berit taberna
Jardueraren titulartasuna aldatzea.

Barrenkale 13an dagoen lokalaren besteritzea

Kirolak
Zumarraga-Urretxu I. Mendi lasterketa: Dirulaguntza.

Gizarte ekimena
Espetxeetarako garraioa: Laguntza.
Gazte Astea: Egitaraua eta aurrekontua.

Euskara
Kontseilua: Dirulaguntza.
Zinea euskaraz eskolatan: Egitaraua eta aurrekontua.

Hezkuntza
Ikastetxeak: Eskolaz kanpoko jarduerak: Dirulaguntza.

Kultura
Santa Lutzia: Egitaraua eta aurrekontua.
Liburutegia: Abenduko ekintzak.

2009rako lan egutegiak
Onespena.

2008ko Lan eskaintza publikoa
Udaltzain lanpostuetarako lehiaketaren oposizioa: oinarriak eta deialdia.

Fakturen zerrenda

2008_12_29

Udalarentzako finantza aholkularitza
Kontratu txikiko esleipena.

Irisgarritasun Plana eguneratzeko klausula administratibo eta teknikoaren plegua
Alkatetzaren ebazpena berrestea.

Ostalaritzako establezimenduetan zarataren kontrol zerbitzuen klausula administratibo eta teknikoaren plegua
Alkatetzaren ebazpena berrestea.
Irisgarritasun Plana eguneratzea:
Behin behineko esleipena.

Ostalaritzako establezimenduetan zarata kontrolatzeko zerbitzua
Behin behineko esleipena.

“Inguru Irekia” Programa
Behin behineko esleipena.

Kreditu aldaketarako espedienteak
Habilitazioak - 2 zk.

Kirolak
Gabon kopa: Dirulaguntza.
Urteberriko igoera herrikoia Irimora: Dirulaguntza.

Kultura
Gizon proba: Dirulaguntza.

2009_01_22

Wifi hari gabeko instalazioa liburutegian eta kultur etxean
Kontratu txikiaren esleipena.
Erabaki da Com&Media enpresari esleitzea, kontratu txikiko modalitatean, Wifi hari gabeko instalazioa liburutegian eta kultur etxean jartzeko, 9.895,21 eurotan BEZ barne.

Hirigintza Planeamenduari buruzko informazioa ekoiztea eta argitaratzea
Kontratu txikiaren esleipena.
Erabaki da Geograma enpresari esleitzea, kontratu txikiko modalitatean, Hirigin-tza Planeamenduari buruzko informazioa ekoiztea eta argitaratzea. Prezioa: 12.000 €, BEZ barne.

Oinarrizko kartografia eta “Rurt” delakoa ekoiztea eta argitaratzea
Kontratu txikiaren esleipena.
Erabaki da Geograma enpresari esleitzea, kontratu txikiko modalitatean, Oinarrizko kartografia eta “Rurt” delakoa ekoiztea eta interneten argitaratzea. Prezioa, 12.000 euro, BEZ barne.

Pantaila profesionala erostea:
Kontratu txikiaren esleipena.
Erabaki da “Optize-Bureau” enpresari esleitzea pantaila profesional baten hornidura. Kontratuaren prezioa: 6.772,08€, BEZ barne.

Faktura zerrenda
27 zk. duen fakturen zerrendaren berri eman da, 45.376,44 eurokoa; hori ikusirik, aho batez onartu da.

2009_02_09

Kultura
Inauterietako jarduerak liburutegian
Erabaki da inauterietan liburutegian egin beharreko jardueren egitaraua eta aurrekontua onartzea, guztira 1.011,90 euroko dirutza.
Inauteriak: Egitaraua eta aurrekontua
Erabaki da Urretxu eta Zumarragako haurrentzat Trakets taldea kontratatzea, ostiral arratsalderako, eta Urretxuri dagokion aurrekontua 865,26 euro.

Zinea euskaraz
Urretxu Zumarragako haurrei zuzenduta eskainiko den euskarazko DVD emanaldiei buruzko egitaraua eta Urretxuri dagokion aurrekontua, onartu dira.
2009ko erakusketak
Erabaki da 2009ko erakusketan egitaraua eta aurrekontua onartzea, guztira 7.326 euroko dirutza.

2009ko antzerki egitaraua
Aurtengo antzerki egitarauaren berri eman da, aurreko urteetan bezala Zumarragarekin batera egingo dena; aipatutako egitaraua urte osoan zehar banatuko da. Egitarau horren gastuen aurrekontua guztira 67.186 eurokoa da; hortik 27.136,42 euro Urretxuri dagozkie, eta haxe da onartu dena.

Kirolak
Trialsin: Dirulaguntza.
Erabaki da Santa Barbaran egingo den Gipuzkoako Trialsin Txapelketako proba bat dela eta, Euskaltrial Txirrindulari kirol elkarteari 275 euroko dirulaguntza ematea.

Gizarte Ongizatea
Munduko Medikua: Dirulaguntza.
Onartzen da Palestinako Herriaren beharrei erantzuteko Munduko Medikua elkarteari 1.500 euroko dirulaguntza ematea.
Eguneko Zentrua: Orduetegiaren luzapena
Onartzen da Eguneko Zentroaren orduetegi zabaltzea, zentroa ordu erdi lehenago irekitzea izango litzateke; horrenbestez, goizeko 10,30etan irekiko da.

Ingurumena
INMA egitasmoa: Dirulaguntza.
Erabakitzen da Osasun Berrikuntza eta Ikerketarako Euskal Fundazioari 2.000 euroko dirulaguntza ematea INMA proiekturako.

Ostegun gizona
Ostegun Gizen eguneko ospakizunari dagokionez, ohitura den bezala, eskolatan ogitartekoa banatzea horren aurrekontua 2.850 euro. Zuhaitzaren eguna ospatzea ere onartzen da.

Estudio Inmobiliarioa, M.I., S.L.” S-4 Sektorea (Pagoeta auzoa) ka-fetegirako eta jatetxerako jardueraren espedienteak
Tokiko Gobernu Batzarraren txostena
Tokiko Gobernu Batzar honen iritziz bizidunak da eskatutako baimena ematea, beti ere hartu beharreko neurri zuzentzaileak hartzen baldin badira.

Egun baliogabeak
Honako proposamena egiten zaio Tokiko Gobernu Batzarrari:
Urretxuko Udaleko Administrazioari dagokionez, ekainaren 24a, uztailaren 2a, eta abenduaren 24a eta 31 jaieguntzat jotzea eta, ondorioz, egun horietan tokatzen den edozein epe, obligazio eta eskubideren epemuga hurrengo lanegunera atzeratzea.

Urretxu eta Zumarragako udalek elkarrekin egiten dituzten jardueren ondorioz sortutako gastuen banaketa: Portzentaiak
Portzentaiak biztanle kopuruaren arabera finkatzen dira. INE erakundeak 2008-1-1 data hartu du ofizialtzat, eta erakunde horren arabera Urretxuk 6.812 biztanle ditu, eta Zumarragak 10.053 biztanle, ondorioz portzentajek hauek dira: Urretxu: %40,39 eta Zumarraga: %59,61.

2009_03_09

Komunikaziorako aholkularitza: Kontratu txikiaren esleipena

Erabakida da Kontratu txikiaren modalitatean, Verbax enpresari esleitzea komunikazio aholkularitza egiteko. Prezioa: 12.000 + BEZ = 13.920 euro, prentsa oharra idaztea berriz, 34,8 € bakoitzeko, BEZ barne.

Buzoneoak: kontratu txikiaren esleipena

Erabaki da kontratu txikiaren modalitatean, Etxeraino, S.L. enpresari esleitzea Urretxuko herrian komunikazio buzoneoak egiteko. 2009ko aurrekontua 13.920 eurokoa, BEZ barne; prezioa 18€/orduko/langileko (BEZ kanpo).

Planeamenduaren berrikuspen proposamenaren balorazio teknikoa: kontratu txikiaren esleipena

Aho batez erabaki da, kontratu txikiaren modalitatean, F.J.G. jaunari esleitzea Urretxuko Planeamendu Orokorren berrikuspen proposamenari buruzko balorazio teknikoa. 20.880 euro, BEZ barne.

Haurreskolan bi gela berri egokitzea: Kontratu txikiaren esleipena

Aho batez erabaki da gastua egiteko baimena ematea eta esleipena honako enpresa hauei egitea: Mendiola Eraikuntzak S.L. Oleta Iturgintza; eta Izazpi S.L. enpresari. Esleipena guztira 48.250,38 eurokoa da, eta horietatik 6.655,22 euro BEZA izango da.

Planeamenduko AASen berrikuspena idazteko kontratua aldatzea

Erabakitzten da: Urretxuko Planeamenduko AASen berrikuspenaren idazlana Injelan, S.L.k jarrai dezan baimentzea, beti ere planteatzen diren aukera berriak jasoz, eta aurkeztutako proposamenaren arabera. 112.855,47 euroko (97.289,20 € + BEZ) gastu osagarria baimentzea, indarrean dagoen Aurrekontu Orokorrean dagokion diru atalaren kargura eta Kontratistak behinbetiko bermea aldatu beharko du, beti ere Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren arabera, orain 3.891,57 eurokoa izango delarik.

Santa Barbarako ermitako azterketa geoteknikoa esleitzea: alkatetzaren ebazpena berrestea

Erabaki da Sokoa Geoteknia enpresari esleitzea Santa Barbarako ermitako ikerketa geoteknikoa egiteko lana. Kontratuaren prezioa: 8.440,03 €, BEZ barne.

Gizarte Ongizatea

Honako hau erabaki da:

Club Txolarte.....	1.449,53 €
Club Txolarte (limpieza)...	1.428,58 €
Mairi.....	1.531,74 €
Cruz Roja.....	2.214,25 €
Asociación Antisida.....	666,88 €
Proyecto Hombre	1.391,07 €
EILUZ	1.297,29 €
Aguifes Urretxu	562,68 €
Aguifes Gipuzkoa	562,68 €
Urgadiel	1.955,83 €
APPALUR	729,40 €
Eraldatzen	1.531,74 €

Donantes de sangre	442,85 €
Aspanovas	350,00 €
Alcer	354,28 €
Nagusilan	442,85 €
Sindrome X frágil	698,14 €

Eguneko Zentroko garraioa

Erabaki da: 25.726,61 euroko zenbatekoa ordaintzea Urola Garaia Mankomunitateari, 2008ko laugarren hiruhilabetekoan zehar Eguneko Zentroari emandako garraio zerbitzuarengatik.

Urretxu eta Zumarragako hiri debekatuaren mapa

Herriko Emakumearen Kontseiluak aurkeztutako proposamenaren berri eman da, Zumarragako Udalaren ekimenez, eta Ados Consulting Ikertaldea, S.L. enpresaren bidez, hiri debekatuaren mapa sortzeko parte hartzeari buruzko proposamena jaso du udalak. Eztabaida labur bat eginda, hauxe erabaki da: Urretxu eta Zumarragako hiri debekatuaren maparen prestaketa lanean laguntzea horretarako 3.875,28 euroko zenbatekoa emanez.

Kirolak

Goierri, K.E.: Dirulaguntza.

Erabaki da Herri arteko plater tiraldia antolatzeko 180 euroko dirulaguntza ematea Goierri, K. E. ri.

Kultura

Martxoan bertsoa

Erabakitzen da Bertso Eskolak aurkeztutako "Martxoan Bertsoa 2009" ekimenaren barru izango diren ekitaldiei dagokien egitaraua eta aurrekontua onartzea. Urretxuri dagokion gastuen aurrekontua, hau da 1.522,7 €.

Euskera

Korrika 16: km eroستا

Onartzen da Korrika 16 ekitaldiari laguntzea, eta km baten erosketa egitea, 500 euroko prezioan.

Barruko Kudeaketa Batzorderako aholkularitza

LKS Koop. Elkarteak aurkeztutako proposamenaren berri eman da, hain zuzen ere 2007-2011 Legealdi Plana egiteko sortu den Kudeaketa Batzordeari aholkularitza emateari buruzko proposamena, toki administrazioaren modernizazioa helburu duena, beti ere Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako helburukako kudeaketa lotua, eta foru erakundeak diruz lagundua.


Aho batez erabaki da kontratu txikiaren modalitatean, LKS Koop. Elkarteari esleitzea Urretxuko Udal barruko Kudeaketa Batzordearen aholkularitza. Prezioa: 7.760 € + BEZ.

2009ko Kudeaketa Planaren prestaketa eta jarraipena

Aho batez erabaki da kontratu txikiaren modalitatean, LKS Koop. Elkarteari esleitzea 2009ko Kudeaketa Planaren prestaketa eta jarraipen lana. Prezioa 19.998,40 €, BEZ barne.

Fakturen zerrenda

1 zk duen fakturen zerrendaren berri eman da, 32.046,19 eurokoa.



Tokiko gobernu batzarra / Junta de gobierno local

2009_03_23

Kultura

2009ko lehiaketak

Erabakitzen da 2009. urtean Urretxuk eta Zumarragak elkarrekin antolatutako lehiaketen oinarriak eta aurrekontuak onartzea. **Lehiaketak:** XXI. Pintura lehiaketa; Argazki lehiaketa; Narratiba eta Poesia lehiaketa, Iparragirre saria; Lore sariketa; Gabonetako Ipuin eta Krisma Lehiaketa eta Kaleko pintura lehiaketa. Urretxuri dagokion gastua, guztira 7.600 euro.

Liburuak plazara

Erabakitzen da liburuak plazara izenburupean Urretxu eta Zumarragan egingo diren ekintzak onartzea, baita Urretxuri dagokion aurrekontua, guztira 1.040,80 €.

Haurrentzako ekintzak: egitaraua eta aurrekontua.

Erabakitzen da apirilaren 14, 15, 16 eta 17an Urretxu eta Zumarragako haurrentzako egingo diren ekintzen egitaraua eta bere aurrekontua onartzea. Urretxuri dagokion gastua 3.414 eurokoa da.

Kirolak

Iñaki Mendiluzeren oroimenezko XIV txapelketa: Dirulaguntza.

Erabaki da Iñaki Mendiluzeren oroimenezko XIV. Txapelketa egiteko, 250 euroko dirulaguntza ematea Urola, K.E.ri.

Herri kirolak kuadrilen arteko III txapelketa: Dirulaguntza.

Erabaki da 600 euroko dirulaguntza ematea.

Fatxadak margotzeko programa:

Dirulaguntza Areizaga 4-6-8-10-12

Erabaki da Areizaga 4-6-8-10 eta 12ko jabekideei 253,32 euroko dirulaguntza ematea, aurrekontuaren %10ari dagokiona.

Mugi Auto Urretxu, S.L.:

Mugitegi Industrialdeko B bidean 23-25ean auto konponketa tailerrerako irekitze baimena.

Erabaki da jarduera irekitzeko baimena ematea.

Estudio Inmobiliario, M.I., S.L. S-4

Sektorea (Pagoeta auzoa) hotelean

kafetegi-jatetxerako jarduera baimena

Erabaki hau hartu da: S-4 Sektorean (Pagoeta) kokaturik dagoen hotelean kafetegi-jatetxerako jarduera sailkatuaren baimena ematea Estudio Inmobiliario M.I., S.L.ri, beti ere beharrezko baldintzak betetzen baditu.

Udal kartografia jasotzea eta eguneratzea: Esleipena

Erabaki da kontratu txikiaren modalitatean, Geolur enpresari esleitzea kartografia jasotzea eta eguneratzea. Prezioa: 6.988,05 + BEZ = 8.106,13 euro.

Kreditu aldaketarako espedienteak:

1 zenbakiko kreditu habilitazioa

Onartu da KREDITU HABILITAZIO erregimenaren bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedienteak onestea 189.345,63 euroko zenbatekoaz.

Fakturen zerrenda

2 zk. duen fakturen zerrendaren berri eman

da, 15.286,06, eurokoa; hori ikusirik, aho batez onartu da.

2009_04_06

Turismoa: Kudeaketelana Uggasari ematea.

Tokiko Gobernu Batzarrak oniritzia eman dio turismoa kudeaketa lana Uggasaren esku uzteari. Lan horrek 51.579 euroko gastua ekarriko lioke Urretxuko Udalari, hain zuzen ere Urola Garaia Mankomunitatean Udal honi dagokion portzentaia (%26,05).

GI-631 ibilbidea (Azkoitia-Urretxu zatia) zehazteko hiritarren parte-hartzea.

Honako hau erabaki da Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak bidalitako "GI-631 ibilbidea (Azkoitia-Urretxu zatia) zehazteko hiritarren parte-hartzea" aurreproiektua onartzea. Baita ere prozesuan parte hartuko duten Urretxuko biztanleak hautatzeko egin beharreko zozketa egitea.

Pinturas Mugitegi, S.L.

"Mugitegi Industrialdean B bidean, 6-behea pintura industrialeko tailerrerako jarduera espedienteak: Tokiko Gobernu Batzarraren txostena.

Tokiko Gobernu Batzar honen iritziz bizidunak da eskatutako baimena ematea, beti ere hartu beharreko neurri zuzentzaileak hartzen baldin badira.

Zerain Margoak, S.L.

Mugitegi Industrialdeko B bidean 1 zenbakian pieza metalikoen margoketa lanen jarduera eta obra baimena.

Jarduera baimena eta obra baimena ematen dira, beti ere hartu beharreko neurri zuzentzaileak hartzen baldin badira.

Fatxadak margotzeko programa:

Dirulaguntza Iparragirre 6

Erabaki da Iparragirre 6ko jabekideei 495 euroko dirulaguntza ematea, aurrekontuaren %10ari dagokiona.

Basagastiko ziburuak egokitzea:

Kontratu txikiaren esleipena

Erabaki da kontratu modalitatean, Garra enpresari esleitzea Basagastiko ziburuak egokitze lanak. Prezioa 5.843,38 + BEZ.

Kirol elkartek: Dirulaguntzak

Onartu da dirulaguntza hauek ematea:

Urola Futbola	11.829,42 €
Urola Eskubaloia	6.590,68 €
Goierri Areto barruko fut.....	3.844,56 €
Goierri Txirrindularitza.....	897,77 €
Goierri Zikloturismoa.....	2.122,96 €
Goierri Saskibaloia	12.632,13 €
Goierri Xakea	547,11 €
Triatlon	2.577,12 €
Goierri Mendi Saila	4.487,34 €
Goierri Pelota Saila	5.805,30 €
Goierri Ehiza	2.301,20 €
Goierri Arrantza	1.542,85 €
UZ Toka taldea	418,40 €
Goierri Garaia Atletismoa	4.196,55 €

Fakturen zerrenda

3 zk. duen fakturen zerrendaren berri eman da, 11.172,99, eurokoa; hori ikusirik, aho batez onartu da.

2009_04_27

"AIKUR erleen zentroa" Saka-banuetako 37 A erleen zentroa irekitzeko baimena

Baimena ematen da.

Manuel Villalba

Barrenkale 15ean sotoan, biltegia eta klimatizazio instalazioa legezatztea: Irekitze baimena. Baimena ematen da.

Kultura

Museoen Nazioarteko Eguna: Urreler mineralen eta fosilen museo

Erabaki da Museoen nazioarteko egunaren egitaraua onartzea, eta baita ere 5.700 euroko aurrekontua.

2010eko lan egutegia:

Herriko jaiegun proposamena.

Honako erabaki hau hartu da: Eusko Jaurilaritzari proposatu irailaren 20a, astelehena, Santa Anastasia eguna, Urretxuko udalerriko jaiegun izan dadin.

Santa Barbarako parkeko ekipamendua eta eraikuntza lanean zuzendaritza:

Esleipena: kontratu txikia.

Erabaki da kontratu txikiaren modalitatean, M.A. andreari esleitzea Santa Barbarako ekipamendua eta parkeko eraikuntza lanen zuzendaritza.

Prezioa 13.193 + BEZ.

Faktura zerrenda

4 zk. duen fakturen zerrendaren berri eman da, 7.528,36, eurokoa; hori ikusirik, aho batez onartu da.

2009_05_11

Udal igerilekuetako iragazkietan hondarra aldatzea:

Kontratu txikia esleitzea.

Erabaki da kontratu txikiaren modalitatean, "URAK, Soluciones Técnicas al Agua" enpresari esleitzea Udal igerilekuetako iragazkietan hondarra aldatzeko lanak. Prezioa: 16.851,65 + BEZ .

Kirolak

Goierri, K.E.: Dirulaguntza.

Erabaki da "Ehiza Xeha Txapelketa" antolatzekeo 215 euroko dirulaguntza ematea Goierri, K.E.ri.

Iñaki Beitiaren oroimenezko XIII mendi irteera: Dirulaguntza.

Erabaki da 1.500 euroko dirulaguntza ematea Iñaki Beitia zenaren oroimenezko mendi ibilaldiaren antolatzaileei.

A.I.U. 23 Sektoreko inguruko zaratari buruzko azterlan egiteko laguntza teknikoa:

Esleipena: kontratu txikia.

Erabaki da kontratu txikiaren modalitatean



tean, AAC Centro de Acústica Aplicada, S.L. enpresari esleitzea A.I.U. 23 Sektoreko inguruko zaratari buruzko azterlan berezia egiteko laguntza teknikoa. Prezioa: 6.000 + BEZ.

Fakturen zerrenda

7 zk. duen fakturen zerrendaren berri eman da, 27.120,54, eurokoa; hori ikusirik, aho batez onartu da.

2009_06_08

Kultura

San Juan: Egitaraua eta aurrekontua.

Erabaki da aurkeztutako San Juan egitaraua eta 11.060 euroko aurrekontua onartzea.

Udaberriko musika kontzertuak

Erabaki da aurreko urteetan bezala Zumarragarekin batera egingo den Udaberriko musika kontzertuen egitaraua eta aurrekontua onartzea. Urretxuri dagokion gastua, guztira 1.437,08 euro.

Kultur elkarteak: Dirulaguntza

Onartzen da dirulaguntza hauek ematea:

- Secundino Esnaola	
- Musika Eskola	25.376,63 €
- Goi Argi abesbatza	1.423,34 €
- Bertso Eskola	1.999,31 €
- Cine Club Butak 21	3.206,56 €
- Aldaketa, Filatelia	
- Numismatika	161,58 €
- Karmakros Antzerki Taldea	444,29 €
- Argazia Elkarte	1.050,14 €
- Ostadar mendi taldea.....	848,19 €
- Z-U Gaztetxea	807,80 €
- Iparragirre Balerdi	
- Musika tailerra.....	12.966,60 €
- Harizpi	600,00 €
- Lekaio	6.000,00 €
- Geltokietako jaiak	2.175,00 €
- Herri Kirol Elkarte	
- San Juanetako jaialdia	1.050,00 €
- Lurra dantza taldea	
- Dantzari txiki	2.597,00 €

Kirolak

Goierri, K.E.: Dirulaguntza.

Erabaki da "Bizikleta festa" antolatzeko 240 euroko dirulaguntza ematea Goierri, K.E.ri.

Moto-krossa: Dirulaguntza.

Erabaki da denboraldi honetan moto-kross jarduera antolatzeko 250 euroko dirulaguntza ematea egitea I.M.Z.ri.

Eire-Bankoa X. Xake txapelketa:

Dirulaguntza.

Erabaki da Eire-Bankoa X. Xake txapelketaren antolaketa dela eta, 1.000 euroko dirulaguntza ematea antolatzailerei.

Karting: Dirulaguntza.

Erabaki da denboraldi honetako karting jarduera babestea, I.B.G.ri 250 euroko dirulaguntza ematea eginez.

Gaindegia: Dirulaguntza.

Onartu da Gaindegia Elkarteari 3.380,50 euroko dirulaguntza ematea, hain zuzen ere 0,50€/biztanleko.

Luminariak hornitzeko prozedura negoziatua:

Behin-behineko esleipena

Erabaki da "ERKA Materiales Eléctricos, S.L." enpresari esleitzea behin-behineko,

prozedura negoziatu bidez, luminarien hornidura, hain zuzen ere proposatutako eskaintzan jasotako baldintzetan, eta 39.917,92 euroko prezioan, BEZ barne.

PAU Irimo-Gerra idazketa: kontratu txikiko esleipena

Erabaki da kontratu txikiaren modalitatean, J.B.D. eta D.G.S. arkitektoei esleitzea PAU Irimo-Gerra idazteko lana. Prezioa 18.000 € + 2.880 BEZ = 20.880 €.

Prozedura negoziatua: karpak eta hainbat material hornitzeko eta instalatzeko klausula plegua onartzea: ebazpena sendestea

Urretxuko Udalarri zenbait karpa eta materialen hornikuntza eta instalazioa egiteko kontratazioa, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez, arautuko duten Klausula Administratibo Berezien eta Teknikoen Plegua onartzen da.

Udal antolamenduaren diseinua funtzionamendu eredu berriari egokitzea: kontratu txikiko esleipena

Erabaki da kontratu txikiaren modalitatean, LKSri esleitzea udal antolamenduaren diseinua funtzionamendu eredu berriari egokitze lana. Prezioa 17.500 + BEZ 2.800 = 20.300 euro.

Sarearen zentralita elektronikoko berriaren hornidura

Erabaki da kontratu txikiaren modalitatean, MCC Telecom enpresari esleitzea zentralita elektronikoko berriaren hornidura, beti ere 03090074.02 eskaintzaren arabera, honako baldintza hauetan: Telefonía: 8.985,74 €; sarearen elektronikoa: 3.786,78 eta TIC segurtasun osagarriak eta konektibitatea: 5.121,51 €.

J.R.M.: Kalerrotan taberna jardueraren irekitze baimena

Baimena ematen zaio.

J.L.I.: Santa Kruz jatetxerako irekitze baimena

Baimena ematen zaio.

Troquelaria Lautrok, S.L.L. Mugitegi Industrialdeko C bidean 14 zkan trokelgintzarako tailerra irekitzea

Baimena ematen zaio.

Raci txatartegia: Mugitegi Industrialdean, E bidean, 1-3 zketan txatartegiaren jarduera handitzeko jarduera espedietea: Tokiko Gobernu Batzarraren txostena

Tokiko Gobernu Batzar honen iritziz bidezkoa da eskatutako baimena ematea, beti ere hartu beharreko neurri zuzentzaileak hartzen baldin badira.

Faktura zerrenda

9 zk. duen fakturen zerrendaren berri eman da, 38.197,59, eurokoa; hori ikusirik, aho batez onartu da.



Euskal Jairik Ederrenak mende erdia beteko du irailean

Urretxu se vestirá de fiesta el 20 de septiembre

Gorka Azkarate

Jakina den bezala, Urretxuko Euskal Jaiak mende erdia beteko du aurtengo irailean; urteurren garrantzitsu hau dagokion moduan ospatzeko, egitarau oparoa osatu da Santa Anastasia jaietako egun handiena den honen inguruan. Udako oporren ostean, Euskal Jaia arnastuko da Urretxun hilabetez.



Urretxurentzat eta urretxuarrontzat hain berezia den Euskal Jaiak berrogeita hamar urte beteko ditu aurtengo irailean. Garai ezberdinak bizi izan ditu festa eta aldarrikapena uztartzen dituen ospakizun berezi honek eta, egun ere, egutegiko egunik garrantzitsuenetarikoa izaten jarraitzen du herritar guztiontzat.

Los carroceros veteranos desfilarán 4 carrozas. La nueva generación también tendrá representación.

Mende erdia ez denez egunero betetzen, oihartzun eta hauspo berezia eman nahi zaio urteurrenari. Urretxuko irudi berriaren lehiaketa irabazi zuen Mattin Osinalderi, Euskal Jaiaren urteurreneko logotipoa egitea eskatu zion Udalak, eta logotipo honek paper garrantzitsua jokatuko du urteurrenaren zabalkundean, nola barnekoan, hala kanpokoan. Herrian zehar kartelak jarrita daude dagoeneko eta eranskailu batzuk ere egingo dira, tabernetan eta dendetako erakusleihoetan jartzeko. Kanporako zabalkundeari dagokionez, hainbat irrati, telebista, egunkari, aldizkari eta abarretan

urteurrenaren berri emango da, eta baita zenbait webgune bisitatutan ere.

Aurtengo Euskal Jai eguneko karrozen desfilean, orain zenbait urte karrozero izandako zenbaitek parte hartuko du: lau karroza egingo dituzte "karrozero beteteranoek". Bestalde, koadrila berriren bat edo beste ere aterako da aurten, erreleboa bermaturik dagoela erakutsiz.

Euskal Jaiaren mende erdiko historia biltzen duen liburuak argia ikusiko du irailean, Gotzon Aranburu kazetari eta idazlearen eskutik. Aranburuk azken hogeita bost urteotan fokatu du nagusiki bere lana, izan ere, duela hogeita bost urte Pello

Gonzalezek Euskal Jaiaren historiako lehen mende laurdena beste liburu batean bildu zuen. Herritarrek dohain jaso ahalko dute liburu berria, banaketa txartel baten bitartez. Aurkezpenean, mahai ingurua egingo da liburuko pasarteak osatzeko egileak elkarrizketatu dituen protagonistekin.

Irailan zehar, erakusketa berezi bat ere egingo da Euskal Jaiaren urteurrenarekin loturik. Erakusketa honetan, baserriak eta artisauek izan duten garrantzia jasoko da. Horrez gain, Lurra dantza taldeak jantziak erakutsiko ditu, eta hainbat eszenifikazio egingo dira. Irailaren 9an, esaterako, egurrezko kateak egiten erakutsiko da eta irailaren 11n, kandelak nola egin azalduko du Aikur erle museoak. Egun horretan bertan, buruhaundi berriak aurkezteko jaialdia egingo da (22:30etan) eta, asteburuan, herriko kaleetan ibiliko dira buruhaundiok.

Feria, exposiciones, libro... un sinfín de actividades para conmemorar el 50 aniversario.

Irailaren 12an, euskal jantzi tradizionalen merkatua egingo da. Bertan herritarrek euren neurriko jantziak zuzenean erosteko aukera izango dute eta hainbat ikastaro txiki izango dira, hala nola, abarretako lokarriak lotzen ikastekoa, edota buruko zapiak nola jarri ikastekoa.

Abuztuko etenalditik bueltan, beraz, Euskal Jaiak dagokion protagonismoa hartuko du Urretxun, bere berrogeita hamargarren urteurrenaren aitzakian.



Urretxu 50
euskal jaia urte

Euskal Jairik Ederrena

irailaren 20an

La Euskal Jaia de Urretxu cumple medio siglo en septiembre. Para celebrar este aniversario como se merece, se ha completado un extenso programa de actividades, en el que destacan, entre otras, la publicación de un libro de la mano del periodista y escritor Gotzon Aranburu, la apertura de una exposición que resaltaré la importancia del mundo rural, o un mercado de vestimenta tradicional. Además, carroceros veteranos tomarán parte en el desfile de este año.





Urretxuarren iritziak / Preguntas al ciudadano

Maite Quevedo - Ana Isabel Iturbe

Ba al dakizu Urretxuko Euskal Jaiak 50. urteurrena betetzen duela?

MARIA DEL MAR IGLESIAS



“Lo mejor es el ambiente”

Pues no sabía que se celebraba el 50 aniversario, no había oído nada. Últimamente no me he quedado ese día en el pueblo, he solido ir fuera. De todas formas, en los años en los que he estado lo que más me ha gustado es el ambiente que hay en las calles.

ANTONI DE AROSTEGI

“Mi Marido y yo cumplimos bodas de oro con la Euskal Jaia”

Sí, ya sabía que se celebra el 50 aniversario, además, para mí también es una fecha señalada porque yo también celebro este año las bodas de oro. Siempre recuerdo que el año que nos casamos fue el primer año de la Euskal Jaia. Lo he celebrado todos los años con la familia y los amigos en la calle, que es donde está el ambiente.



SAIOA eta IKER GONZALEZ

“Gu baserritarrez janzten gara”



Guri asko gustatzen zaizkigu festak. Gainera, egun horretan baserritarrez janzten gara eta asko gustatzen zaigu. Karrozak politik dira baina festetako hoberena barrakak dira! Beti izaten dugu festak iristeko gogoia.

MIRIAM CABALLERO

Ez nekien 50. urteurrena ospatzen zenik. Aspaldi ez naizela festetan ateratzen, baina atera izan naizenean lagunekin juergan ospatu izan dut. Askok gustatzen zait festetako giroa. Karrozak egiten sekula ez dut parte hartu baina urtero joan izan naiz desfilea ikustera.



Zuk nola ospatzen duzu?

LURDES AUZMENDI



“Kanpotik lagunak etortzen dira gurera”

Bai, badakit aurtengoan Euskal Jaiak data borobila ospatzen duela. Guk urtero berdin ospatzen dugu: Zarautzeko lagun batzuk ditugu eta bazkaltzera etortzen dira. Ondoren, karroza desfilea ikusten dugu beti. Niretzat oso egun polita da eta ziur aurten berezia izango dela.

MAIALEN GARCIA

“Es importante que la gente disfrute”



No sabía que se celebraban los 50 años de la Euskal Jaia. Aunque sé que es un día bonito, tengo que reconocer que no tengo costumbre de salir en fiestas. De todas formas, me parece fenomenal que la gente salga y que disfrute.

FLORIAN ARAMENDI

Bai, entzun dut 50. urteurrena ospatzen dela. Nahiz eta zuzenean euskal jaietako ekintzetan parte hartzen ez dudan, urtero ateratzen naiz karroza desfilea ikustera. Ikusle gisa hartzen dut nik parte festetan eta oso gustuko dut egoten den giroa. Oso jai polita da.



JESUS ACOSTA



Sí, ya sé que este año se celebran 50 años y pienso que serán unas fiestas especiales. Lo celebraré como todos los años, comeremos en familia y después veremos el desfile de carrozas, que es lo más típico de estas fiestas.





Hare Haizea: el Sahara en Urretxu

M.^a Carmen Viedma



Umeak kanpamendu batetako hartzaindegian

Hoy les voy a contar una historia, o un par de ellas. He aquí la primera:

Un día, Marimar le dijo a Galia:

- Cuando tu hijo sea mayor, podrá venir a mi casa, a Urretxu.

A lo que Galia contestó:

- Cuando mi hijo sea mayor, ya no necesitaremos mandar a los niños a Urretxu porque viviremos en nuestra tierra.

Marimar, es M^a Mar Renedo, miembro de la asociación Hare Haizea de Ayuda al Pueblo Saharaui en Urola Garaia. Junto con varias familias de Urretxu, Zumarraga y Legazpi ha recibido hace unos días, como los últimos 8 años, a una niña saharauí.

Galia es su amiga saharauí. Antes de ello, fue su traductora durante las visitas que ha realizado a los campamentos de refugiados de

Tinduf y tiene un niño de corta edad.

La esperanza de Galia es la esperanza de los miles de refugiados, entre 135.000 y 165.000, según las distintas organizaciones, que viven, sobreviven o malviven en las tierras "prestadas" por Argelia al suroeste de este país tras la Marcha Verde en 1975 y la anexión del territorio del Sahara Occidental por parte de Marruecos y Mauritania en los primeros momentos y por parte de Marruecos posteriormente.

Aunque hace 18 años que se firmó el alto el fuego, el censo para realizar el referéndum de autodeterminación que les prometieron hace más de 3 décadas sigue sin estar claro y ellos siguen considerándose de paso en una tierra en la que viven en condiciones infrahumanas, un "cementerio viviente" según palabras de Remi García que desde hace 3 años trae a una niña a su casa en verano y que pasó 5 días con ellos en Semana Santa.

Urretxu, Zumarraga eta Legazpiko familia askok Saharako haurrak hartu dituzte etxean.

La segunda historia es la que nos cuenta la propia Remi sobre su estancia en los campos de refugiados de Tinduf:

"El pueblo saharauí es un pueblo alegre, aunque se le refleja la tristeza en los ojos.

Físicamente están muy envejecidos y normalmente tienen grandes carencias alimenticias. Yo misma he visto compartir un plátano, el único que tenían, entre seis. Ello hace que tengan enfermedades oculares y dentales, entre otras.

"Bidaia gogorra izan zen baina berriz itzuliko nintzateke, oso harrera beroa izan baikenuen".

Cuando les llega, hacen una sola comida al día y muchas veces las madres hacen como que preparan la comida con un puchero de agua puesto al fuego esperando a que los pequeños se duerman y no pidan la cena.

Yo no me hacía a la idea de cómo podían vivir allí y por eso me decidí a hacer el viaje. Aun-

que es caro y muy cansado, pues no paras en durante cinco días, porque todos te quieren conocer y agasajar, en el desierto y a 40°... volvería con los ojos cerrados. No lo cambiaría por unas vacaciones".



◀ Kanpamenduen "aberastasuna": Gurdiak, astoak, pezoako etxetxoak eta "jaimak".



▶ Remi Garcia hango neskatila bat besoetan duela, joan den Aste Santuan egindako bidaian.



▶ Naza eta bere neba etxeko lanak egiten, arropa garbitzen, hain zuzen.

Aritz Lasa__ Pilotaria

“Ondo jolasteaz gain, emaitzak lortzea beharrezkoa da”

Kizkitza Ugarteburu

Ederrena pilotaleku zaharrea hasi zen pilotan jolasten 6 urte zituela. Afizionatu mailan urte askoan aritu ondoren, Frontis enpresarekin debutatu zuen profesional mailan 23 urterekin. Aurrelari urretxuarrak Aspe enpresan jokatzen du urtarriletik. Ordutik 25 partida jokatu ditu eta urtea bukatu bitartean beste horrenbeste jokatuko ditu gutxienez.



_Nondik datorkizu pilota zaletasuna?

Familiatik. Aitonak pilotan jokatzen zuen eta aita delegatua da. 6 urterekin hasi nintzen pilotan jolasten, anaiarekin eta eskolako lagunekin. Urtebetez futbolearen ere aritu nintzen Urolan baina, bi kirolen artean, pilota aukeratu nuen.

_Iaz, Nafarroako lau t'erdiko txapela jantzi zenuen. Zer sentitu zenuen?

Fitxa Nafarroako Federazioan genuen pilotariok txapelketa horretan jokatzeak aukera izan genuen eta polemika sortu zen, gipuzkoarra izanda, Nafarroako txapela jantzi nuelako. Iruñean, San Ferminetan izan zen final hura Nagorearen aurka eta herritik autobusa joan zen animatzera. Ilusio handia suposatu zuen niretzat garaipen hark.

_Profesional bezala Frontis enpresarekin hasi zinen. Orain, berriz, Aspe enpresan zaude. Zer suposatu du aldaketa horrek zuretzat?

Nik pilotan jolasten jarraitzen dut eta entrenamenduei dagokienez ez dago aldaketa handirik. Baina, Frontis enpresa ere profesionala den arren, Aspe eta Asegarek eragina dute telebistan eta, ondorioz, zaletuek gure ibilbidea jarraitzeko aukera gehiago eskaintzen dute. Telebistan agertu ondoren, amari askotan esan diote ez zekitela ni pilotaria nintzenik, 19 urtez pilotan aritu ondoren.

Kuriositate moduan esan diezazuket baita Frontis enpresarekin praka motzekin jolasten nuela, Asperekin, berriz, luzeekin.

Tengo un contrato de 3 años con Aspe para jugar, como mínimo, 50 partidos por año.



_Astero zenbat egunetan entrenatzen duzu? Astebururo jokatzeko al dituzue partidak?

Gimnasia edo lan fisikoa egiten dut astean 2-3 egunetan Tolosako kiroldegian, eta astean behin, frontoian entrenatzen dut Iruñan, Labriten, edo Eibarren. Eskuetan izaten dudana minaren arabera, gimnasioko lan gehiago edo gutxiago egiten dut eta partidaren aurreko egunetan deskantsua egiten dut. Astebururo jokatzeko ditut partidua, astean bat, gutxienez.

_Udan, jaiak direla eta gehiago jokatu duzue, ezta?

Bai, uda garaia izaten da gogorrena. Partida artean ia entrenatu gabe ibiltzen naiz, bi egunetik behin jokatuz. Negua, berriz, hotzaren eraginez, garai txarra da eskuentzat.

_Nola ikusten duzue pilota Urretxun?

6 urterekin ume asko, 50-60 inguru, hasten dira pilotan baina, denbora igaro ahala, ikasketak eta beste kirol batzuk direla eta, pilota utziz joaten dira. Hasierako horietatik oso gutxi jarraitzen dute jubelinetan, bik besterik ez. Oso gustokoa izan behar duzue pilotan jolasten jarraitzeko, gorenara iristeko sufritu egin behar baita.

_Noizbait pentsatu al duzue pilotan jolasteari uztea?

Ez, ez dut horrelakorik inoiz pentsatu. Afizionatu mailan nengoenean, txapelketetan maila ona erakutsi nuenez, gogor ekin nion profesional izatera iristeko.

_Zein da zure ustez pilotaririk onena?

Nire ustez Irujo da momentu honetan pilotaririk osoena.

Los pelotaris debemos ser conscientes de que muchos aficionados van al frontón a apostar.

_Zeintzuk dira zure ustez pilotari on batek izan behar dituen ezaugarriak?

Indarra izatea, ondo prestatuta egotea eta airez jolasten jakitea. Gaur egungo pilotak ez dauka zerikusirik garai batekoarekin abiadura aldetik. Egun pilotariok ere askoz hobeto prestatzen gara. Honengatik guztiagatik aurrelariak pilota sartzeko derrigorrez airez jolastu behar du.

El parvulario de Aparicio

Jon Castrillo

Si la propuesta de Modificación de las Normas Subsidiarias presentadas por el equipo de gobierno sigue su proceso legal sin contratiempos, antes de 10 años el conocido como Barrio Aparicio desaparecerá de nuestra vista y con ello convertirá en recuerdos las innumerables vivencias que los vecinos del barrio han compartido en sus 50 años de existencia.

Eran las navidades del año 1959 cuando el patrón de la empresa Irimo, D. José Luis Aparicio entregaba las llaves de las viviendas que constituyen el barrio que lleva su nombre a sus numerosos empleados, oficinistas y encargados.

La mayoría de estos obreros eran gente joven, que al ver conseguida cierta estabilidad, no tardó en tener descendencia.

Así, y sólo dos años más tarde, en 1961, gracias al Patronato creado al efecto, se abrió un parvulario para acoger a todos los niños del barrio de hasta 7 años que, por distintas razones, a menudo no recibían la escolaridad que les correspondía.

Fueron 13 años de actividad educativa a manos de tres maestras urretxuarras: Amelia del Barrio, M^a Elena Álvarez y M^a José San Vicente. Precisamente con esta última, hija del siempre recordado colaborador de esta revista Teodoro San Vicente, hemos hablado para conocer algunos detalles de aquella experiencia que para ella duró 3 años.

Lo primero que recuerda es el frío que pasaban en clase. "Se trataba de un barracón prefabricado y, por ejemplo, el último año ya sólo tenía 10 alumnos: Arantxa y Lourdes, Lourdes y Celia, Marisa, Kinito, Rosi, Mariví, Patxi y Roberto, por

lo que calentar la clase con una simple estufa de butano se hacía del todo imposible". Según nos cuenta M.^a José, algunas madres conscientes de ello y aprovechando el tiempo de recreo, le bajaban un muy agradecido café con leche caliente para que pudiese entrar en calor.

Pero la vida no se detiene y así, en 1974, llegó el día de cerrar la escuela para siempre. Más adelante, la escuela se convirtió en la actual sociedad del barrio, donde, seguramente más de una vez, los propios socios recordarán en sus sobremesas las mil y una anécdotas vividas en aquel parvulario y que ninguna modificación de planteamiento urbano conseguirá jamás borrar de su memoria.



La profesora Amelia del Barrio con sus primeros alumnos. Foto cedida por la familia Santamaría.

Kaixo txiki

Kaixo Txiki!

Ana Isabel Iturbe

Aupa txiki, oporretan gustora?

Joan al zara Urretxuko piszinara? Ederki ibiliko zara, ezta?

Bertan ipuinez betetako txoko bat aurkituko duzu, "bibliopiszina" da.

Uretan jolasteaz gain ipuinekin ere ondo pasatzeko.

Zoaz ta ondo pasatu!!

Denbora pasa hau zuretzat. Uda polita pasal!

LOTERA ZOPA (Fruituak)



 LARANJA

 MARRUBIA

 MELOIA

 PIKUA

 MAHATSA

Hartu guraizeak, moztu azpiko irudia, eta zuen ipuintxoetan gorde, irakurtzen zaudeten bitartean ez galtzeko!!





Urretxu euskal jaia

50
urte

1959-2009

Euskal Jairik ederrena

irailaren 20an

www.urretxu.net



Urretxuko udala